



PRESIDENTE ANDREAK

Werner Schwab

3. bertsioa: 2009-10-14

Euskaratzea

Julia Marin Arteaga

Laguntzaileak

Pedro Bilbao eta Miren Agur Meabe

PERTSONAIAK

Erna:

Jubilatua, erretiro-pentsio txikia du.

Txabusina, zapata ortopedikoak; buruan, larruzko txano xelege bat.

Grete:

Potolo samarra, orrazkera oso kardatua (ilehoria), gustu txarreko jantziak, bisuteria asko eta oso pintatua. Gaztetan kantaria izandakoa.

Mariedl:

Berak dauka arroparik pobreena. Ilea atzealdera tenkatua; mendiko botak. Hasieran, tuntun samarra ematen du. Erna eta Grete baino gaztexeagoa da.

LEHEN ESZENA

Publikoa esertzen den bitartean, telebista zahar bat ikusiko da besaulki-patioaren erdialdeko korridorean. Piztuta dago: Juan Pablo II.a aita santua meza ematen ari da jendez inguratutik. Erna eta Grete eserita daude emanaldiak irauten duen denboran. Erna erabat kontzentratuta dago; Greteri, berriz, ez zaio gehiegi interesatzen. Ikuskizuna amaitzen denean, Erna telebista itzaltzera altxatzen da. Mariedl makurtuta dabil, zerbaiten bila.

Erna: Jende pila bat. Sekulako jendetza zegoen, eta han geratu dira denak kongregazioan bilduta Aita Santuaren oinetan.

Grete: Irudiak zoragarriak, e! Eta koloreak polit-politak, natural-naturalak.

Erna: Jende asko zegoen, baina lasaitasun hunkigarria sumatzen zen. Bakeak zentzua ematen dio bizitzari. Eta bizitzak zentzua ematen dio gizadiari.

Grete: *(Ernari.)* Ideia ona izan duzu, Erna, narruzko txano hori eta koloretako telebista hona ekarrita. Orain plazerra zure etxean sartu da. Bizitzaren eskuetan ipini behar zara, Erna, eta holan bizitzak zutaz disfrutatuko du.

Erna: Bai, oso erraza da hori esatea. Bizitzaren plazer guztiak alferrik dira aurreztea hezurretaraino sartuta daukazunean. Baina, orain, behingoagatik, bizitza oso garbiketan eman duenak ere aukera dauka zoriotsu izateko. Txano hau duela urtebete topatu nuen, zabortegean. Baina ez pentsa inork bota zuenik; oso garestia da horretarako. Itxura denez, mutiko bihurri batzuek maltzurkeria galanta egin zioten baten bati.

Ezin duzu imajinatu ze zikina zegoen topatu nuenean. Hiru ordu eta erdi pasa nituen buruari bueltaka eta azkenean poliziari ematea erabaki nuen.

Eta orain, urtebete geroago, inork ez du erreklamatu. Galdutako gauzen bulegoan, polizia jator batek esan zidan: "Emakume apala zara, ondradua zarelako. Ipini txano hori Eguberrietako pinuaren azpian, eta hala, behin bada ere, poz txiki bat hartuko duzu." Egia esan, nik ez diot inoiz kapritxo handirik eman nire buruari, baina honekin poztu egin nintzen benetan.

Grete: Ez zenuke hainbeste aurreztu behar, Erna, ze hain diru gitxi be ez daukazu. Eta bizitza pentsatu baino bizkorrago pasatzen da.

Erna: Orain baimena eman diot nire buruari telebista hau ekartzeko, bigarren eskukoa bada ere. Bizitza osoa lanean eman eta gero hauxe da bete dudan lehen kapritxoa. Ahotik kendu dut beti dena, baita nire seme Herrmannen ahotik ere. Aurrezten jakinez gero, askoz hobeto antolatzen duzu bizimodua. Denean aurreztu daiteke. Esate baterako, kafea egiteko filtro berezi horiek erabili beharrean, komuneko papera erabili daiteke; eta komunean, berriz, egunkari-papera, eta hori eskailera azpian aurkitu daiteke paper zaharra egoten den lekuan. Bueno, egia esan, nik kafearekin ere aurreztu egiten dut, sekulako gorrotoa diot. Baina nire Herrmannek ezin du irentsi *Leberkäse*¹ bokadiloa ez badio bultza egiten kafetxo batekin, berak dioen moduan. *Leberkäse* bokadiloa gorozki bat balitz bezala, eta bere tripa, komuna.

Mariedl: Erna, gehiegi aurrezten duzu. Eta Jaungoikoak ez du gura bihotz oneko pertsonak hain estu bizitzerik.

Erna: (*Haserre.*) Nire Mariedl maitea, zuk erraz hitz egiten duzu: bakarrik bizi zara eta ez duzu inoiz harremanik eduki. Kanpoan ibiltzeko aukera izan duzu. Aurten, adibidez, Lourdesen izan zara, eta Vatikanon eta, bi aldiz, Fatiman. Zuk ez duzu zaindu beharrik esker txarreko semerik batere.

Grete: Baina, Erna, Herrmann ondo gizon kementsua da.

Mariedl eseri egiten da, sorbaldak jasotzen ditu nahastuta eta gorputza mugitzen hasten da aurrera eta atzera.

Erna: Bai, egia da: mutil ederra da. Emakumeak txoratu egiten dira nire Herrmann pasatzen denean. Gaur egun lotsa galduta dabilta denak. Baina Herrmannek uko egiten die bizitzaren gauza polit guztiei. Nik beti esaten diot: “Hor, egunen batean, hor ipiniko ditugu nire biloben erretratuak” (*Infiniturantz seinalatuz.*) Baina berak ez du nahi nire desioa bete, eta ez dit bilobarik ematen.

Garai hauetan oso erraza da haragizko trukeak izatea. Gaur egun jendeak etengabe izaten ditu haragizko trukeak. Eta Herrmann konturatzen da berak ere baduela aukera haragizko trukeak izateko, baina ez du haragizko trukerik nahi, hain zuzen ere haragizko trukeak benetako haurdunaldia eragin dezakeelako, eta horrek agian biloba bat ekarriko lukeelako.

¹ *Leberkäse*: haragi xehetua espeziekin; ogi-forma izaten du.

- Grete: Trankil, Erna. Herrmann hain da altua eta lerdena... Topatuko du emakume egokia.
- Erna: Bai, hori da nire esperantza bakarra. Eta bitartean konfiantza eduki behar dut Jainkoak ez duela nire Herrmann eskutik utziko. *(Negarrez.)* Asko ibiltzen da etxetik kanpo, saltzaile moduan. Postalak bidaltzen dizkit beti: aurrealdean paraje zoragarri bat, eta atzealdean esaten dit oraingoan ere aukera izan duela haragizko trukeak izateko, baina hain zuzen ere horregatik ez duela izan batere haragizko trukerik.
- Grete: Baina, Erna, emakume egokia iristen denean, Herrmann hartu eta musutxo bat emango dio. Eta orduan, haragizko trukearena berez etorriko da. *(Kantatuz.)* Maitasunaaa, maitasunaaa zeruaren opariaaaa...
- Zer esan beharko nuke nik orduan? Pentsa nire patuan, Erna. Herrmann, gitxienez, gogoratzen da zurekin eta postal bat bialtzen dizu haragizko trukearena kontatzeko. Baina ni? Nire alaba Hannelore duela bederatzi urte Australiara joan zen. Baina, joan aurretik, oilo bat balitz bezala, obarioak eta ez dakit zer gehiago kendu zuen, bai, bilobak edukitzeko behar den guztia. Bederatzi urtean, postal bakarra: "Ondo nago eta oso ondo doa dena". Hori idatzi zidan duela zortzi urte eta erdi. Eta orain Lydi baino ez zait geratzen.
- Erna: Herrmannek ez lituzke postal horiek bidali behar.
- Grete: Bueno, Hannelore be neskazarra da. Berrogei urte beteko ditu laster. Baina oso jarkera arraroa eduki du beti, Herrmannek bezala ia. Askotan jokutzen zuen heziketarik ez balu moduan. Batzuetan, aurpegiarekin hausten zuen leihoko kristala, bapere larritu barik, gero pusketak jan eta barre-errementaziñoka hasten zen matrailak eta titiak zauriz beteta ikustean. Eta nik esaten nion: "Tira, Lore, orain gitxienez txarrikume txikertu bat emoten duzu eta gizonek borroka egingo dute zurekin egotearren", eta bera trankil-trankil geratzen zen, atzamar potoloa ahoan sartu eta lo egiten zuen hogeita hamar ordu segidan.
- Erna: Bai, horrelakoa da bizitza. Batek sekulakoak eta bi egiten ditu bizimodua behar bezala ordenatzeko, eta orduan seme-alabak urrundu egiten dira bizitzatik eta gizaditik.

- Grete: Bueno, beste erremediorik ez badago, Hannelorek topatu dezala zoriona han Australian, obario barik bada be.
- Erna: Herrmann ilargian ibiltzen da beti. Norbait ikusten badu, trago bat edan behar du eta zigarro bat erre. Horregatik egin da saltzaile, jende asko ikusteko, eta orduan aitzakia dauka egunero mozkortuta bueltatzeko etxera.
- Mariedl: Dana dala, historian santu asko eta asko izan dira gaztetan munduari lepoa emonda bizi izandakoak.
- Erna: Gaztetan? Herrmannek berrogei urte ditu.
- Mariedl: Gizakiak egun baten sakada bat sentitzen du barruan eta, derrepentean, botoia askatzen zaio.
- Erna: Herrmannen kasuan, fabrika batean kabitzen diren botoi guztiak askatu beharko lirateke. Ezin du agoantatu bere burua. Aurpegia garbitzen duenean, ispilua estali behar izaten diot toalla batekin. Bizarra egitean, batzuetan, ebakiz betetzen du aurpegi osoa, ez baitu ispilua erabili nahi; esaten du ispilua kabroia dela. Eta kalean, bere burua ikusten badu dendetako kristaletan, Herrmannek Herrmann ikusten du, eta orduan, botaka hasten da mozkortuta ez badago. Eta hori egunero-egunero entzun behar izaten diot. Hitz bakoitzarekin eta mozkorraldi bakoitzarekin bizia kentzen ari zait apurka-apurka.
- Mariedl: Hain zuzen be, pertsona horreek izaten dira Jesus edo Ama Birjina, graziaz betea, Jauna da zurekin deskubritzen dutenak. Eta goizetik gauera Espiritu Santua agertzen da arima inuzente horreen barruan. Horixe berori pasa zitzaion Saulori San Pablo bihurtu zenean. Igual Herrmann be egunen baten San Germano bihurtuko da.
- Erna: Hori da nire esperantza bakarra: aldaketa handia gertatzea Herrmannen bizitzan. Baina nik zerbait ganorazkoa esaten badiot, berak barre egin eta trago bat hartzen du.
- Grete: Jende gehienak ez du bizitza entenditzen. Batzuetan, bizitza pertsona baten aurrean jartzen da eta misio bat betetzeko enkargua emoten dio, eta orduan pertsona horrek behargin atzerritarra balitz moduan jokutzen du: "Nik ez ulertzen, nik ez ulertzen", esaten dute beti.

Nire Lydiren kasuan guztiz desberdina da, Lydik dan-dana ulertzen du. Eta inoiz hasten bada beste baten kaka-mokordoarekin jolasean, nik esaten diot: “Lydi, ez kakarik jan”. Eta berak baietz esaten dit burutxoarekin. Behin egurrezko txakurtxo bat ikusi zuen hori bera egiten eta atoan ikasi zion.

Mariedl: *(Izugarri gustatu zaio.)* Benetan?

Grete: Bai, ume baten txakurra zen, gurpilduna, eta umeak sokatik tira egiten zionean, txakurrak buztana mobidu eta baietz esaten zuen burutxoarekin, gora eta behera, bai, bai, bai, bai, bai... *(Gretek indar handiz dio baietz buruarekin, eta Mariedl barrez hasten da ero moduan.)* Saltxitxa-txakur zoragarria zen, oso koloretsua eta Lydiren tamainakoa. Lydiri itzel gustatu zitzaion, eta harrezkeroztik txakurtxo hark bezala mobiduten du burua nik esaten badiot: “Lydi, ez kakarik jan”. *(Mariedl barrez hasten da berriro.)*

Erna: Grete, mesedez, ez esan gordinkeriarik. Hain hitz zatarrak erabiltzen dituzu beti... Beti berdin: kaka, kaka eta kaka. Badaude beste hitz gehiago ere, gorozkia, esate baterako, edo obramendua. Zergatik izan behar du beti kaka, kaka eta kaka?

Grete: Zuk beti kontra egin behar, dana kritikatu behar, bizitza osoa emon duzu mundu guztia narrutzen, eta gero harritu egiten zara Herrmannek ez duelako nahi haragizko trukerik.

Erna: Baina, Grete, ez du merezi horrela bizitzerik, gauza guztien ondoan gorozki nazkagarri bat ikusten duzu beti. Bizitza honetan, gauza eder gutxi dago, eta eskua luzatzen duzunean zerbait hartzeko, zikinkeriaz betetzen zaizu.

Mariedl: Niri hitz zatarrak ez didate beldurrik emoten, ezta benetako “gorozki” batek be. Familia oneko jendea nire bila etortzen da komuneko zuloa ataskatuta daukanean. Egia esan, ez dit bapere lotsarik emoten eskua komunean sartzeak, Gure Jesukristo Jaunari eskaintzen diot, guregaitik hil zen-eta gurutzean. Jende dotoreak plastikozko eskularruak ekartzen dizkit, baina Mariedlek ezetz esaten die, Jaungoikoak mundua sortu zuenean gorozkiak be sortu zituelako.

Erna: Jainko maitea, Mariedl, ez izan zerrria. Nahiko zoritxarra da gizakia beti kaka egiten ibili beharra eta gero kontzientzia txarra edukitzea. Askotan galdetzen

diot nire buruari zer dela-eta daukan jendeak ipurdia. Ipurdia ez da batere polita, baina jendeak etengabe hitz egiten du ipurdiari buruz eta mito bihurtu du.

Grete: *(Ernari batere jaramonik egin gabe.)* Orduan, jende dotore asko etortzen da zure bila laguntza eske?

Mariedl: Pilo bat. Jende dotore eta aberats asko etortzen da Mariedlen etxera. Behin, auto haundi bat etorri zen nire bila komun gaixo bat ikusten eroateko. Etxe horreetako komunak ez dira benetakoak, dotore-dotore egoten dira eta ez dago obramendu-usainik bapere; komunetako usaina eta andre dotoreena bardin-bardina da.

Dotrina emoten duen jauna bi bider etorri da nire bila, eta abade jauna baten. Abade jaunak berba emon dit nire abilezien barri emongo diela eliztarrei.

Erna: Ez dut ulertzen, nire komuna ez da behin ere ataskatu. Jendea, itxura denez, zikina baino zikinagoa da eta gauza arraroak botatzen ditu komunetik behera. Gorozki xume batek ezin du komun bat hain erraz ataskatu. Eta, ez pentsa, nireak ere handiak eta gogor-gogorrek dira. Herrmannek eragiten dizkidan nahigabeengatik; pilatu egiten zaizkit gorputz barruan.

Gero, gogotik lan egin behar izaten dut eskuilarekin eta kateari tira egin behin eta berriro. Jakina, ez da paper asko bota behar komuneko zulora, zeren bestela ustekabeak gertatzen dira. Herrmannek errieta egiten dit beti komunean esertzen denean libratzeko asmotan, eta ni zelatan egoten naizenean ate ondoan jakiteko zenbat paper-pusketa gastatzen dituen. “Baina, Herrmann, oso inportantea da”, esaten diot, “arrisku handia dago papera gorozki txar eta likatsuren batekin katramilatzeko”. Baina berak barre egin eta tragoa hartu ez du besterik egiten.

Grete: *(Mariedli, interes handiarekin.)* Baina jende dotoreak zer botatzen du, ba, komunetik behera halako tapoiak egiteko?

Mariedl: Baten, mermelada-pote bat zizarez betea; beste baten, oilasko haundi bat, seguruenik usain txarra izango zuen komunera bota baino lehen be. Beste baten, aldizkari batzuk jende piloa narru hutsik zeukatenak.

Tira, Erna, ez itzazu gauzak euren onetik atara, hain serio hartzen duzu bizitza... Bizitza zintzoa da eta garbi erakusten dio jendeari zerez eginda dagoen. Behin sartu baduzu eskua komuneko zuloan, nazka-sentimendu horreek desagertu egiten dira eta iruditzen zaizu eskua emoten zoazela baten bateri. Bardin-bardina da.

Grete: Niri Lydiren kakak ez dit bapere nazkarik emoten, badakidalako zer jaten duen. Baina beste norbaitena baldin bada... Gaur egun, hainbeste eta hain txarto jaten da.

Erna: Ni ez naiz gai horrelakorik egiteko. Ezin dut. Botaka hasiko nintzateke. Ahotik botako nuke sabela. Hortzak garbitzean, goragalea izaten dut, atera kontuak.

Herrmannek ikusten duenean goragalea sentitzen dudala hortzak garbitzean, berak ere goragalea duenaren itxurak egiten ditu. Eta gainera, zerri zikin horrek esaten dit: "Ikusten, ama? Ezin dut agoantatu *leberkäse*".

Grete: Erna, faborez, zergaitik exajeratzen duzu beti hainbeste? Herrmann gizon zoragarria da, emakume egokia falta du, ez da besterik. Ni apur bat gaztetxoagoa banintz... Ez dakit nora goazen orain maitasuna egiteko dagoen erraztasun horrekin (*Barre txikia egiten du.*)

Erna: Grete, sexua eta kaka beste gairik ez duzu. Eta nik ezin dut uztartu nire fede katolikoa sexuarekin eta kakarekin. Ez gaizki pentsatu nitaz hau esateagatik, baina zu oso emakume "alaia" zara. Bi aldiz egon zara ezkontuta eta ez duzu inoiz etxeko atea behar bezala itxi. Eta atea ondo itxita behar zuen zu barruan gordetzeko.

Grete: Erna, ez dizut onartuko halakorik leporatzea hain asmo txarrarekin. Nik aipatu dut Herrmann askotan, leihotik begira egoten naizenean usoek txorien jana har ez dezaten, ba Herrmann ikusten dudalako kalean eta hain...

Mariedl: Eta usoek zergaitik ezin dute jan? Hareek be Jaungoikoak sortutako izakiak dira.

Grete: Hara bestea! Mariedl, faborez! Bueno, ba hori, Herrmann ikusten dudanean, hain altua, hain ulegorria eta begi-urdina, ba gaztetako pekatuak gogorarazoten dizkit (*Barre bihurria egiten du.*)

- Mariedl: Baina txoritxoek zergaitik ez dute eskubiderik zure leihoan egoteko?
- Grete: Baina zoratuta zaude, ala? Zer jakingo duzu zuk Naturaz. Usoek triskatu egiten dute dana. Lydi gogaituta dago pizti horiekin. Ikusi beharko zenuke zelan bizkortzen zaizkion bihotz-taupadak leihotik ikusten dituenean. Orduan ez zenituzke hain gauza arraroak esango.
- Erna: Nik uste dut ondo tratatu behar direla mundu honetako txoritxo guztiak. Sutan jartzen naiz telebistako izugarrikeriak ikusita. Presidente Federalak azkeneko diskurtsoan esan zuen bakearen eta barkamenaren alde dagoela. Barkamena da munduko gauzarik inportanteena, nik beti barkatzen diot dena Herrmanni. Alkoholez gainezka etortzen bada etxera, nik esaten diot: “Herrmann, ama batek dena barkatzen du”. Eta orduan berak botila hartu eta seko mozkortzen da, eta zerri zikin horrek ez du erabiltzen basorik ere.
- Mariedl: Jendeak egunero egin beharko leuke zeozer lagun hurkoaren alde. Niri, norbaiti laguntzen diodanean, zoriona bihotzaren barru-barruraino sartzen zait segituan.
- Eta inork ez badu Mariedlen esku finen premiarik, jesarrita geratzen naiz nire koarto barruan, eta oso zoritxarreko sentitzen naiz. Ez zait gustatzen nire koartean egotea eta horregaitik konpontzen naiz txiki-txiki bategaz. Eskerrak leku guztietan behar diren lagun hurkoa maite duten esku finak. Mariedl ikusten dutenean, esaten dute: hor, hor doa gure Mariedl, jo eta ke lanean barriro be. Bera bai langilea; jendeak maite du Mariedl, zer egin bera barik. *(Bat-batean altxatu eta garrasika hasten da.)* Mundu guztiak maite du Mariedl ekintza on asko eta asko egiten dituelako! Gora gure Mariedl! Zu bai bikaina!
- Erna: Bai, bai, badakigu oso langilea zarela. Zuk ere zerua irabaziko duzu egunen batean. Fedea da negarrezko ibar honetan dagoen zubi bakarra. Baina orain nire hutsegite berbera egiten ari zara: serioegi hartzen duzu bizitza. Gretek ez bezala. Berak buru argia izan du beti, emakume “alaia” da.
- Grete: *(Haserre.)* Gaiztoa zara gero! Zelan izan zaitezke hain gaiztoa aurpegi irribarretsu horrekin? Lehenengo aldian, dibortziatu egin nintzen eta, bigarrenean, alargundu. Zer pentsatzen duzu zuk, bikotea haragizko plazerra dela bakarrik, ala? Eta Kurti, nire lehen senarra? Eta Hannelore? Zer egin behar dut nik

enteratzen naizenean senarrak alaba zigortzen duela eta berarekin oheratzera behartzen duela familiaren etxean bertan? Zer egin orduan?

Itxaron egin behar da eta ikusi Probidentziak zer ekartzen duen. Baina Probidentziari aukera ere emon behar zaio nasai lan egin dezan, ikusteko zer egiten duen azkenean. Eta Probidentziak amaitzen duenean, bizitzak ez dio bati hainbesteko minik egiten. Ze, zertarako balio du haserretzeak? Azken batean, Probidentzia ezin da aldatu. Nik ezin diot Probidentziari lepotik heldu eta esan: aizu, zoriontsu egin behar nauzu.

Bueno, Hanneloreri eta Kurtiri ere entenditzen diet. Maitasunean akordu politik egoten dira. Kurtik askotan esaten zidan: “Hannelore ederra da, zu gaztetan bezala”. Jakina, gertatu zena ez dago ondo, eta ganera Hannelore lar gaztea zen sasoi hartan. Baina Kurtirena ere ulertzeko modukoa da. Gerra-garaian hain zen ofizial harroa eta lerdena, lehenengo garaipenak iritsi zirenean, pentsatuko zuen mundu osoa menpean zuela. Eta boteretsu izateko desio hori barruan eraman du beti.

Hannelore Australiara joan zenean, Kurti nigandik dibortziatu eta neska txinatar edo tailandiar horrekin ezkondu zen. Nik ez dut ulertzen: ze ikusten zion Kurtik hemezortzi urteko neskato begi-oket bati?

Erna: Sexu-kontuak suntsitzaileak izaten dira. Jende on asko dago libertinajeak erabat hondatuta.

Grete: Ni gaur egun maitasunetik apartatuta bizi naiz erabat. Baina, egia esan, oindino be litekeena da gizonen batek kortejatzea. Nik, inolako damurik barik, ezetz esaten dut beti. Eta noiz edo noiz sentimendu zahar beroak esnatzen bazaizkit, Brunswick saltxitxa bat erosten dut eta Emmental gazta, pepinilloak eta garagardo botilatxo bat, eta bizitzak atoaan errekeratzen du bere alde atsegina.

Erna: Bai, janarian izugarri aurreztu daiteke. Oso leku ona ezagutzen dut horretarako: Wottila. Ez duzu inon aurkituko *leberkäsea* Wottilarenean bezain merke. Karl Wottila. Ez naiz gogoratzen noiztik erosten diodan *leberkäsea*. Behin esan zidan berak asko duela *leberkäseari* eskertzeko, eta horregatik erabaki duela merkeago saltzea bizitza osoan. Wottilarentzat promesa modukoa da. Oso ondo

esplikatu zidan hori: inoiz lortzen bazuen harategi propioa, merke baino merkeago jarriko zuela *leberkäsearen* prezioa bizitza osorako. Bueno, ba, azkenean lortu zuen bere harategia, eta orain jende-ilara luzeak izaten ditu dendako atean. Wottilak ere bizitza interesgarria izan du. Polonian jaio zen, berak kontatu zidan dena hona bisitan etorri zitzaidan batean.

Grete: Wottila hona etorri zen bisitan?

Erna: Ba bai, eta loreak ekarri zizkidan eta kilo bat okela.

Mariedl: Wottila gizon errukitsua da.

Grete: Erna, gizon hori oso aproposa da zuretzat, poloniarra bada be. Ez du erretzen, ez du edaten. Ja ez dizu bisitarik egiten?

Erna: Hor eseri ginen eta izugarri gustura ari ginen berriketan, hain sakona zen dena... Orduan, Herrmann sartu zen, zerri zikin hori, mozkorralditik esnatu berri, eta esan zuen: "Hara, hemen *leberkäse* kiratsa dago, trago bat behar dut". Eta ni lotsa-lotsa eginda, handik desagertzeko irrikan. Baina Wottila oso lasai geratu zen, eta esan zuen Herrmannen itxura ikusita ez zuela ematen zeruko zoriona lortzeko aukera handirik zuenik.

Grete: Tira, Erna, ez irentsi Wottila horrek esaten dizun guztia.

Erna: Baina Wottilak urte luzeetako eskarmentua dauka. Hori da bere hobya: okela eroatera joaten zaizkion bezero guztien aurpegia aztertzea. Niri behin esan zidan emakume ona nintzela baina bizimodu zoritxarrekoa nuela. Eta arrazoi osoa zuen.

Mariedl: Bai horixe. Jendearen ondoan egon behar da beti eta ahalegindu danak fedearen bidera eroaten, kontuz eta borondate onez, abade jaunak dinoen moduan.

Erna: Wottila gizon serioa da bakarrik bizi delako. Nik esan nion ezin nuela nire semea etxetik bota. Baina kontuan hartu behar da ere Wottila behin benetako agerkunde baten lekuko izan zela basoan, iluntasunaren erdian. Zigarro bat erre eta trago bat hartzekotan zela, Ama Birjina agertu omen zitzaion. Eta bera, txundituta, ziplo erori zen hankaz gora. Ama Birjina hiru metro eta erdi luze zen eta oso dotore zegoen jantzita, eta esan omen zion: "Erretzea eta edatea bekatu

kaltegarriak dira; zoaz penitentzia egitera eta zabaldu honen berri mundu osoan". Orduan, Wottila konortea galduta egon zen ordu batzuetan. Bere onera etorri zenean, larrosa zuri bat aurkitu zuen ondoan eta botila bat ur. Elizari dirua eman zion gurutze-bide bat egiteko leku hartan, eta handik aurrera ura baino ez du edan. Gehienez ere, kafesne bat goizetan, baina alkoholik ez sekula.

Grete: Bai, litekeena da hori egia izatea, baina Wottilak ez dauka beti arrazoia. Zeuk kontatu zenuen behin zelan esan zuen Herrmanni komeni zitzaiola *leberkäse* asko jatea, gibela alkoholez gainezka zeukalako. Eta hori, nire Erna maitea, hutsegite galanta da. *Leberkäsea* ez da batere ona gibelerako, zientifikoki probatuta dago. Nire ginekologoari egin nion kontsulta.

Erna: Zientifikoki, zientifikoki... Iritzi asko dago zientzialarien artean, baina pertsona gehienak fededunak gara, apaiz jaunak dioen moduan. Nik ez dut sinesten zientzialariek esaten duten guztia. Bai zera! Ezin dut sinistu Wottilaren *leberkäsea* ona ez izatea nire Herrmannen gibelerako. Wottila oso txukuna da saltxitxak prestatzeko orduan, eta seguru ez diela botatzen substantzia toxikorik bat ere. Bueno, eta zure ginekologoa bost axola niri, seguru oker dagoela, ginekologoek sexua beste kezkarik ez daukate buruan.

Grete: Erna, faborez... Zure aurrean ezin da ezer esan Wottilari buruz berarekin maiteminduta zaudelako, santujale hutsa baita.

Mariedl: (*Ozen.*) Ez dago ondo inori santujale deitzea.

Erna: (*Salto batez zutituz.*) Zuuu... Nazia, dibortziatua; horixe zara zu, komunioa hartzerik ere ez daukazu eta.

Grete: (*Salto batez zutituz.*) Zu ere dibortziatua zara, eta atso zahar eta santujalea.

Erna: Baina ni dibortziatu inozentea naiz, eta komunioa hartu dezaket.

Grete: Baaaiii, tripa barruan sexu ustela daukazulako, eta hor *leberkäse* pusкета bat baino ez zaizu sartzen.

Mariedl negarrez hasten da.

Erna: Sexua, sexua eta sexua, horixe besterik ez daukazu buruan. Puta zikina zara, puta nazia eta harroputza.

Grete: Nazia, nazia, zer dakizu zuk naziei buruz. Garai hartan mundu guztia zen nazia. Eta ni puta baldin banaiz, zu moja amorratua.

Erna: Gure herrian inor ez zen nazia. Gure herrian ez. Hitler bakarrik, gizon maltzur eta seduktore hura. Hori esan du Presidente Federalak, ezta? Baina zer ari naiz ni zurekin hizketan? Ganorarik ere ez daukazu-eta noizean behin mezatara joateko. Eliza abandonatzen duen jendeak ezer gutxirako balio du, saltxitxak egiteko ez bada, Wottilak dioen moduan.

Grete: *(Gorrotoz beterik, Ernarengana hurbiltzen da.)* Baaaiii. Lastima Hitlerrek *leberkäsearen* zure gotzain poloniar hori garbitu ez izana.

Erna, garrasika, Greteren kontra oldartzen da. Borrokan hasten dira. Mariedl saiatzen da otoitz egiten, baina negar-zotinek ez diote uzten. Bat-batean, borroka egiteari utzi eta, nahastuta, arropa txukuntzen hasten dira. Mariedl lasaitu egiten da pixkanaka eta hasten da Greteren ileordearen pusketak lurretik jasotzen. Erna eta Grete lurrean eserita daude zer egin ez dakitela. Azkenean, Erna altxatu egiten da eta, Mariedlekin batera, Grete potoloari altxatzen laguntzen diote.

Erna: Gu bai tuntunak, halako txikikeria batengatik...

Mariedl: *(Presaka, sukalde-egongela txukuntzen hasten da.)* Orain, bakeak egin behar dituzue. Inportantea da barrero be maitasuna nagusitzea gure artean.

Grete: Erna, ikasi behar duzu beste eretxi batzuk ere onartzen. Jakin beharra dago hori egiten, holan esan zuen Presidente Federalak, ezta?

Erna: Zuk ere baduzu zer ikasia!

Grete: Baina, zer dinozu? Zer pentsatzen duzu zuk, nik ez dudala federik, ala? Fede handia daukat, baina niretzat askoz gatzagoa da dana. Zergaitik? Ba, Lydirengatik, jakina. Zelan itxiko dut Lydi bakar-bakarrik ni mezatara joateko? Zelan eskatuko diot Lydiri, hain bizia izanda, hainbeste denbora emateko elizan geldi-geldi. Zer gura duzu egitea domeketan Lydirekin?

Erna: Bai, Grete, arazo latza daukazu. Ez nuen esan nahi esan dudana.

Grete: Nik ere ez nuen esan nahi esan dudana, Wottilarena alegia. Seguru nago bere *leberkäse* ez dana txarra. Lydik ere batzuetan jaten du pusketa txikiren bat, eta kostatu egiten zait konbentzitzea, ez pentsa.

Mariedl: Holantxe, maitasuna nagusitu da berrero be gure artean. Bueno, emon musutxu bat alkarrereri eta dana konponduta.

Mariedlek Ernaren eta Greteren buruak hurbiltzen ditu indarrez; eta, hasieran nahi ez badute ere, elkar besarkatzen dute azkenean.

Erna: Ahaztu ditzagun bizitzaren petralkeria guztiak. Hobe dugu apur bat dibertitzea. Herrmann tabernan dago, zure alaba Australian eta Mariedl hemen daukagu. Ahaztu ditzagun kezka guztiak eta politika guztia.

Grete: Arrazoi duzu, zergaitik ezin dira apur bat dibertitu gure moduko atso zahar hestebeteak? Ardo apur bat ekarriko dut.

Mariedl: Zer dira hestebeteak?

Grete: Odolosteak eta halakoak.

Erna: Ja, ja... Bai, nire Wottilak egiten dituenak.

BIGARREN ESZENA

Berriz ere Ernaren sukalde-egongela. Altzariak berberak dira, baina espazioak beste itxura bat hartu du, jai-giroarena edo feriarena. Mahai gainean ardoa dago, lau edalontzi handi eta saski txiki bat ogi-opil gogorrez bete. Telebista piztuta dago eta probako karta erakusten du. Denak, patxadan eserita, ardoa edaten ari dira.

Erna: Nik behin eta berriro esaten diot: eseri, Herrmann, on egingo dizu, pelikula horrek atsedeen emango dio zure kontzientziari. Baina, hain zuzen ere horregatik, ez du ikusi nahi.

Mariedl: Pelikulak zoragarriak dira. Mendiak eta itsasoa daude, jendeak ahoan emoten dizkio alkarrerri musuak eta benetako umeak izaten ditu. Eta beti egoten dira arazo latzak, baina zintzoak ederto konpontzen dira oztopo guztiak kentzeko mundutik.

Erna: Pelikula on batean garbi ikusten da nolakoa izan litekeen bizitza pertsonen zintzo jokatu balute elkarrekin. Pelikuletan jende onak atera behar luke beti, eta hala lortuko litzateke jendea hobea izatea, batez ere gazteak zaharrekin.

Grete: Pelikula batek lehenengo eta behin dibertigarria izan behar du, sikiera denborapasaren bat edukitzeko bizitzan.

Erna: Bai, bizitzan behar-beharrezkoa da dibertimenduren bat edukitzea. Baina nik gogoko ditut arazoak kontatzen dituzten pelikulak ere, asmo onarekin egindakoak badira, jakina. Eraman behar dudun gurutzeagatik, Herrmannen erruz, badakizue.

Mariedl: Dibertitzea, morala zainduz egiten bada behintzat, polenaren antzekoa da arimarentzat. Abade jaunak dinoen moduan, Jaungoikoak atsegin du bere ardiak dibertitzea.

Grete: *(Basoa altxatuz.)* Txin-txin! Beste ardotxo bat! *(Kantatuz.)* Tralari, tralara...

Erna: *(Barrez.)* Emakume "alaia" zara, Grete, zu bai zarela artista dibertitzeko orduan. Eta bizimodu alaia ere ezagutu beharrezkoa da. Baina, jakina, zu ez zara gehiegi larritzen zure alaba galdu horrekin; ni Herrmannekin, berriz...

Grete: Ez kezkatu Herrmannengaitik eta kantatu nirekin: “Amaaaa, ez negarrik egin zure semeagaitik...” (*Mariedl txaloka hasten da, poz-pozik.*)

Erna: (*Goxo.*) Grete, mesedez, ez burla egin.

Grete: Begira, orain ospatuko dugu narruzko txanoa eta telebista daukazula, eta kito. (*Mariedli.*) Ea, Mariedl, abestu kanta alairen bat.

Mariedl: (*Pentsatu eta kantari hasten da.*) Puntatxoa-puntatxoa sartu barrura, puntatxoa-puntatxoa atara kanpora, puntatxoa-puntatxoa zelako gustua.

Erna: Mariedl, mesedez!

Mariedl isildu egiten da. Ernak eta Gretek elkarri begiratzen diote, txundituta. Bat-batean, Grete barrez hasten da.

Grete: Ez daki zer kantatu duen-eta.

Erna: Aizu, Grete, ez duzu gaizki pentsatu behar beti. Kanta bat besterik ez da.

Grete: Zer esan nahi du puntatxoarenak? Zu ez zara Mariedl bezain inozoa.

Erna: Bueno, bai, baina ez da hitzez hitz hartu behar, kanta sinbolikoa da.

Mariedlek ez du piperrik ulertzen eta burua astintzen du nahastuta.

Grete: Bai zera! Berbeak ateratzen diren bezala esan behar dira, eta festak datozen moduan ospatu. Oraintxe etorri zait burura Grete maiteminduta egon zen garaiko irudia. Eta nire barruak ardotxo batekin ospatu nahi du.

Mariedl: Mariedl primeran konturatzen da beste pertsonen bihotzak noiz pozten diren. (*Altxatu eta dantzan hasten da; baina pauso batzuk eman orduko eseri egiten da berriro.*)

Erna: Nire ametsa da egunen batean Erromara joatea Wottilarekin. Zoragarria litzateke *urbi et orbi* bat San Pedro plazan. Edo, gutxienez, egunen batean belardi batera joatea. Edo festa atsegin batera bestela.

Grete: Hori-hori, festa handia eta atsegina. Jende asko egongo da eta musikari asko, danak traje tipiko ederrak jantzita.

Musikarietako bat oso altua eta oso lerdena izango da, pikaro eder eta izugarri sasoiko bat, bateria jotzen duten horietakoa. Eta begi-ñikadak egingo dizkio Greteri denbora guztian, lotsa barik. Berehalaxe ikusten da bera dela lotsabakoena. Eta musika une batez isiltzen denean, mutil lerdinak garagardopitxer erraldoi bat edango du Greteren osasunaren alde topa egin ondoren. Gretek be bere basoa hartu eta altxatu egingo du. Musikari lerdinak, emon dezagun Freddy izena duela, orain astia dauka Greteri patxadaz begiratzeko. Baina Gretek ez dio asko begiratu, bera ez baita begirada huts batengaitik prest agertzen diren horietakoa. Baina konturatuko da maitasuna ate nagusitik sartu dela eta menpean hartu dituela Grete eta Freddy.

Mariedl: Eta Mariedlek edariak zerbitzen lagunduko du jaian. Eta garbiketan ibiliko da txukun-txukun, eta noizean behin baimena emongo diote bezeroren bateri zerbitzeko be. Jendea liluratuta geratuko da ikustean Mariedlen esku finek zelan manejatzen dituzten trapuak. Eta orduan, jaun dotore bat sartuko da jaian eta aztoratuta esango dio jende alai horrerik komuna ataskatu egin dela, komun guztiak ataskatu direla, eta gorozkiak gora eta gora datozela.

Erna: Jendeak dibertitzeko eskubidea dauka: arimak atsedena behar du. Baina festara baino lehen jende zintzo hori elizan izan da eskerrak ematen Jainkoari, dibertitzeko aukera eta zoriona jarri dizkiolako eskura. Wottilak ur bedeinkatuz bustita dauka oraindik kopeta Ernarekin besotik helduta sartzeko denean festara. Eta mundu guztiak alkoholez betetako edariak eskaintzen dizkio eta zigarro kaltegarriak. Baina Wottilak esaten die: “Damutu zaitetzte, itzuli onbidera eta zabaldu honen berri mundu osoan”. Eta Ernak zoriontsu begiratzen dio.

Hiru emakumeek beren ametsak kontatuko dituzte txandaka.

Grete: Bitartean, Freddyk, bateria jotzeaz aspertuta, albo batera itxi eta keinu batekin eskatuko die beste musikari ederrei musika aldatu eta abesti erromantikoa jotzeko, berak ez baitu bateria jotzeko astirik izango. (*Barre txikia.*)

Mariedl: Eta orduan jendeak garagardo piloa edango du, on-ona gainera, eta okela on asko jango du, eta pepinillo haundiak eta distiratsuak. Eta guztiak premia larria sentituko dute, janak gorputzetik atara gura izaten duelako behin digestioa egin ondoren.

Baina, ene! Zer egingo dute? Ataskatuta dago dana, ez dago komuntxo bat be libre. Gainera, urduri dabilta komun batek gainezka egin duelako. Jendeak besoak astindu eta txilioka galdetuko du: “Non dago Mariedl, non dago Mariedl? Joan haren bila, komun ataskatu guztiak errenditu egiten dira Mariedlen aurrean eta. Joan!”.

Erna: Eta Ernak ardotxo bat edango du lotsa galduta, eta Wottila begira geratuko zaio lizunkeria pixka batekin.

Grete: Eta Freddyk irribarre benetan lizuna egingo du. Adorea bildu eta Greteren aldamenean eseriko da. Lydi, mahai azpian dago, zaunka batean, jeloskor.

Mariedl: Eta jendea Mariedl ikusi eta txilioka hasiko da: “Gora gure Mariedl!” Eta lepoan hartuta komuneraino eroango dute. Han abade jauna egongo da itxaroten. Abade jauna! Bere irribarre lizunarekin. Gomazko eskularru barriak dauzka, larrosa kolorekoak eta astindu egingo ditu Mariedlen aurpegiaren aurrean. Baina berak ezetz esango dio buruagaz. Eta orduan jendea barrez hasiko da, badakitelako guztiek Mariedlek ezetz esango duela. Eta bidea egingo diote: prest dago lanari ekiteko. Orduan, txaleko berdea erantzi eta blusaren mahukak goratuko ditu.

Erna: Bai, baina, bitartean, Erna Wottilak erositako ogia jaten ari da, eta okela eta pepinilloak. Ernak gustura jan du okela oso umore onean dagoelako, eta Wottilak ere bigunduta begiratu dio eta esan du ondo egongo litzatekeela egunen batean dantza lotuan egitea biek.

Grete: Freddy bai dela dantzari trebea. Greteri gerritik heldu eta jira eta buelta ibili du festa-aretoan barrena. Benetako musikari batek ederto daki zelan egiten den hori. Eta beste neska guztiak begira-begira geratu zaizkie, beren mutil erdi hildakoak aldamenean dituztela. Eta Freddyk kontu txikiak esan dizkio belarrira eta txitximurka egin dio mokorrean, eta Grete lotsagorritu egin da. Lydi une horretan zoribako sentitu da. Gretek lotu behar izan du kanpoan. Eta Lydi primeran portatu da.

Mariedl: Mariedl jo eta ke dabil beharrean, baina ez du ezer topa ondino. Komuna sakon-sakona da, eta gainera jendeak obramendu ezin gogorrakoak egin ditu eta azalera datoz banan-banan. Orduan, Mariedl konturatu da badagoela zeozer

gorozki guztiak baino gogorragoa. Atzamarrekin heldu eta kontserba-lata bat da, zabaldu bakoa. Eta orduan jendea txaloka hasi da Mariedlek lata altxatu eta komuna borborrean hasi denean. Abade jaunak dino lata hori Mariedlentzat dela eta irekigailua bota dio, begiratzeko zer dagoen barruan. Mariedlek, arin-arin, inguruko kaka kendu eta zabaldu egin du abilidade haundiarekin. Barruan okela dago itzelezko usain goxoa duena. Okela hungariarra da, espeziat betea, eta abade jaunak sardexka eta ogi-zati bat bota dizkio Mariedleri.

Grete: Bai, litekeena da Lydi zoribakoa izatea, baina oindino ez daki oso zoriontsua izango dela luze gabe. Freddyk gero eta maizago egiten dio txitximurka Greteri, eta galtzak izugarri puztuak dauzka. Bitartean, kontatu dio bere herrian baserri handi bat daukala morroi eta neskame ugarirekin, eta hiltegi propioa. Leku asko ei dago Lydik korrika egiteko, eta hango okela munduko onena ei da.

Freddyk dio Grete andre egokia dela etxeko nagusia izateko. Eta Gretek garbi ikusi du Probidentzia ari dela egiten Gretek merezi duena. Freddyk orduan esan dio gustura asko irtengo litzatekeela kanpora leku nasai batera. Gretek dio emakume serioa dela eta, Freddyren nahia entenditzen badu be, serioak izan beharra daukatela. Freddy txikiak ondo hartu dio, eta esan dio: “Zu bizitza osorako emakumea zara”. Eta are gehiago puztu zaizkio galtzak.

Mariedl: Mariedl hasi da ogia bustitzen okela-latan. Eta orduan...

Erna: Bueno, bueno, horrek itxoin beharko du. (*Haserre, Mariedl birrintzen du begiradarekin.*) Ez duzu ikusten oraintxe daudela musika erromantikoa jotzen hastekotan? Bueno, ba, azkenean hasi da lotuan dantza egiteko momentua. Wottilak eskutik heldu dio Ernari eta galdetu dio ea ohorea egingo dion. Eta azaldu dio bera ez dela dantzari ona Jainkoaren beldur delako, eta lortu duela bere harategi propioa, eta horregatik ez duela astirik izan solomoa mugitzen ikasteko. Eta Ernari bihotza samurtu zaio. Abestia bukatzen ari da. Wottilak esan dio Ernari belarrira, isil-isilik, komunera joan beharra daukala tiranteak askatu zaizkiolako; konpontzen saiatuko da eta baliteke aukera aprobetxatzea sabela hustutzeko ere. Eta orduan garbi ikusi da konfiantza handia daukala Ernarekin halako gauza intimoak kontatzeko.

Mariedl: Bai, emakumea, Karl Wottila jauna komunera joan daiteke: Mariedlek lortu du komun bat askatzea. Eta orain indarberrituta sentitzen da okela jan ondoren.

Hori ez zaio sekula pasatu: komuneko tapoi horretako bat jatea. Jendea Mariedlen inguruan batzen da, bueno, tartean metro batzuk itxita, noski, usainagaitik. Baina inbidia sentitzen dute okela goxoagaitik, hori ondo ikusten da guztiak irribarrez daudelako. Eta gero, okela amaitzen denean, bibaka hasten dira danak batera: eup, eup, eup!, animoak emoten Mariedleri hurrengo komuna garbitzen joateko. Eta orduan abade jaunak irribarre lizun-lizuna egiten du barriro be, plastikozko eskularruak astinduz.

Eta jendea, pozik, eskandaluan danak batera: “Mariedlek ez du behar eskularrurik, Mariedlek ez du behar eskularrurik”. Eta Mariedl hasi da eskua sartzen... A ze gauzak egiten dituen gure Mariedlek! Harrapatu du paper bigundua, baita kaka meheak ere, eta orduan, bat-batean, zeozer gogorra ikutu du, kristalezko potea emoten du, eta zasta! kanpora atara du.

Eta ura komuneko zulotik behera doa. Gustua emoten du ikusteak. Baina, zer du Mariedlek eskuan? Garagardo botila eder bat, eta zabaldu bakoa gainera. Hain goxoa da okelagaz batera edan ezkerro. Orain Mariedl desiatzen dago jakiteko zer ezkututzen den hirugarren komunean.

Erna: Hobe izango da Mariedlen komunak atsedeen pixka bat hartzea, hitz egin beharra daukagu berriz gizon ondradu bati buruz: Wottilari buruz.

Grete: Baita zera ere! Eta nire Freddy? Zer gura duzue, kontserban ixtea bere maitasunarekin? Wottila eserita dago Mariedlek garbitu duen komunean. Orain Freddy eta Greteren txanda da barriro.

Ernak mehatxu egiten dio Greteri ukabilarekin eta gorrotoz begiratzen dio. Mariedl, zoriontsu, bere garagardo irudizkoa edaten ari da.

Grete: Gretek mehatxu egin dio Freddyri atzamarrarekin, umea balitz moduan, eta zer egin du lotsabako horrek? Berak ere atzamarra erakutsi dio Greteri. Eta Freddyk atzamar zoragarria dauka, polit-polita eta potolo-potoloa. Eta zer egingo du lotsabako horrek? Ba, itxarongo du Gretek foku azpian dantza egiteari ixten dion arte eta ipurzuloan sartuko dio atzamarra. Hori egundoko plazerra da Greterentzat, baina bere maitea errealitatera ekarri beste erremediorik ez du eta zaplazteko bat emongo dio. Freddyk atoa ulertuko dio, noski, ez baitu puta bat hartu nahi emaztetzat. Bueno, bueno, esan dio Gretek bere maiteari, sartu

duzu atzamar hori Greteren kutxatxoan, eta ikusi duzu ez daukala zerikusirik beste emakumeek kulero azpian daukaten oilo ustel horrekin. Eta zer egingo du Freddy maitagarriak? Ba, berarekin ezkontzeko eskatu. Baina Gretek asko daki bizitzari buruz, eta esango dio dantza pixka bat egiteko gogoia daukala eta ondoren emongo diola erantzuna.

Mariedl: Eta garagardoa bizia ematen dion elixirra da Mariedlentzako. Eta orduan...

Erna: Itxoin pixka bat. Orain zu isilduko zara, Mariedl. Nola utziko dugu Wottila komunean eserita hainbeste denboran? Ez dauka tripan inolako arazorik! Beraz, berehala bueltatu da komunetik eta esan du bizkor libratu dela bera ez delako zerri zikin gaixo bat beste jende asko bezala, eta horregatik ez duela hitz zatarririk idazten komuneko atean eta paretan eta sabaian.

Wottila hain da gizon burutsua. Esaten du oso zentzuzkoa litzatekeela gurutze xume bat eskegitzea komunaren parean, edo Presidente Federalaren argazki bat bestela. Horrek erakutsiko lioke jendeari ze kategoria gutxi daukaten. Wottilak dio gauza txarrak pilatu egiten direla gizakiaren gorputzean, eta gizakiak kanpora atera behar duela bere perfekzio eza eta inguru osoan zabaldu. Wottilak arrazoi du. Horregatik dago parrokiaren zuzendaritza-taldean.

Mariedl entzuten egon da liluratuta. Ernak azalpenak ematen zituen bitartean, harengana hurbiltzen joan da bere aulkiarekin. Orain urrundu egiten da mantso eta baldar.

Mariedl: Eskerrak Mariedlek komuna garbitu duen, Karl Wottila jaun hori oso errespetagarria delako, eta gainera parrokiaren zuzendaritza-taldekoa.

Baina Wottila jaunak ez daki zer ezkutatzen den hirugarren komunean. Hori Gure Jesukristo Jaunak eta abade jaunak baino ez dakite, eta zeruko aingeruek akaso. Baina zuloan ez dago ezer gogorrik. Bai arraroa, pentsatu du Mariedlek, agian mokordo xume batek ataskatu du komuna. Orduan, abade jaunak irribarre lizuna egin du barrero be, eta bila jarraitzeko esan dio. Uste dut gaizto-gaiztoa zarela, esan dio Mariedlek abade jaunari, eta eskua sartu du barriz be hondoraino. Orduan, gauza arraro bat ikutu eta kanpora atara du: pakete txiki bat da plastikozko poltsatxo baten barruan sartua, ez bustitzeko ur zikinarekin. Eta jendea txaloka hasi da: "Gora gure Mariedl!". Eta jendea poztu egin da Mariedlek halako sorpresa polita topa duelako. Abade jaunak dino Mariedlek

oparia merezi duela behargin fina delako eta demaseko profesionala. Mariedlek arin-arin zabaldu du. Eta zer egongo barruan? Frantziatik ekarritako perfumea, bene-benetakoa, Mariedlek usain goxoa izateko beti!

Grete: Ba, Gretek ez du halango perfumeen premiarik, nahiz eta bere miresleek etengabe oparitzen dizkioten. Gretek berezkoa du usain goxoa. Freddyk atean esan zuen Gretek bere plater kutunaren usain goxoa duela: txarrikume erreka patatekin. Eta hori oso inportantea da emakume batentzat. Baina orain erabagi gaitza hartu behar du: zer erantzun behar dio Freddyri? Berarekin ezkondu nahi duela bizitza osorako? Horregaitik, kanpora irten da Lydiri kontsulta egiteko, baina Lydi erabat aztoratuta dabil. Alde batetik, leku pila bat korrika egiteko eta janari ona. Bestetik, Freddyrekin partekatu beharra bere jabe maitea. Ez da kontu erraza. Eta Gretek argi duenean ze erabagi hartu behar duen, Lydik burutxoak mobidu du barrira: “Bai, bai, bai, bai...” Orain Gretek badaki Freddyrekin ezkonduko dela Jainkoaren izenean. Eta orduan festan sartu da poz-pezik pauso sendoak emonez. Freddy belauniko jarri da haren aurrean eta esan dio bere buruaz beste egingo duela ezezkoa emoten badio. Zu bai kokoloa, esan dio Gretek, nire erantzuna baiezkoa da, mutila! Eta Freddyk salto egin du txarri amorratu batek usika egin izan balio moduan, eta poz-pezik kantatzen hasi da deadarka: “Baiezkoa eman dit, baiezkoa”. Eta bat-batean jauzi egin eta eszenatokira igo da. Beste musikariek Grete ederra zoriondu dute, eta orduan Freddyk bateria jo du txiki-txiki eginda ixteko moduan. Festako jende guztia zoriontsu sentitu da eta dantza egin du bikote paregabearen inguruan. Baina gizon asko deprimetuta daude, haiek ere gustura asko helduko zioten Greteri. Baina Gretek hartuta dauka erabagia eta uko egin die guztiei banan-banan. *(Gretek, leher eginda eta zoriontsu izerdia lehortzen du.)* Aaaaa! Ze polita izan den dan-dana.

Mariedl: Eta Mariedlek pototxua zabaldu eta tragotxua emon dio perfume zoragarriari.

Erna: Ez nekien hainbesteko zeresana zenuela komunen inguruan, Mariedl. Ez duzu ikusten Erna eta Wottila izugarri hurbiltzen ari direla elkarrengana?

Gainera, orain beste ogi bat jaten ari dira biak okelarekin, baina oraingoan Erna kafesnea ari da edaten, beste ardo bat hartuz gero arriskua dago bere sentimenduak amildegitik behera galtzeko. Eta hori dena gutxi balitz, Wottilak

Ernaren esku saiatuetako bat hartu du eta haren atzamar larrutuei begira dago gustura.

Wottilak dio basoan agertu zitzaion Ama Birjinak antz handia zuela Ernarekin, baita bere amarekin ere. Alde bakarra Ama Birjinaren jantzia askoz ere deigarriagoa zela, eta gainera koloretako argi txikien instalazio bat omen zeukan inguruan, piztu eta itzali zebilena etengabe. Ernak hori entzutean sentitu du bere barnea zerurantz doala zitzu bizian. “Hori ohore handia da niretzat”, dio, eta ezin du besterik esan emozioak gorputz osoa harrapatu diolako.

“Beharbada, ezkontzea izango dugu onena”, esan dio Wottila zintzoak, “harategi batek emakume baten esku saiatuak behar ditu, Erna Wottila andrea”.

“Erna Wottila andrea.” (*Xuxurlatzen du Ernak oso hunkituta.*)

Mariedlek eskua altxatzen du eskolan balego bezala, eta aldi berean beste eskuko atzamar bat sudurrean sartzen du. Ez diote kasurik egiten.

Grete: Grete be ezin zoriontsuago sentitzen da une honetan. Freddy txora-txora eginda dago berarekin, eta behin eta barrero txukundu behar ditu narruzko prakak, eztanda egiteko zorian dauzka eta. Baina mutil zintzoak mendean hartu du bere burua, errespetu eta mirespen handia sentitzen baitu Greteren emetasunaren aurrean. Eta Gretek haratago begiratu du, eta hasi da pentsatzen zelakoa izango ete den bere ezkon-jantzia eta ze opari egingo ete dion Lydiri. Platertxo bat okela egosiz betea beharbada eta beste gauza politen bat, ohetxo barri bat edo.

Erna: Erna eta Wottila pozarren daude. Erna ondoezik sentitzen da okela asko jan duelako, baina batek gehiegi jan duenean, ondoezik bai baina pozik ere sentitzen da. Erna, jakina, kezkatuta dago etorkizunarekin, erantzukizun handiak izango dituelako. Azken batean, garbitzailea izatetik negozio-andrea izatera pasatuko da, eta hori sekulako pausoa da. Eta negozio-andre batek urruti eduki behar ditu gorozkiak eta kaka.

Mariedl gero eta urduriago dago, eskua altxatuta jarraitzen du. Hasten da botak arrastaka eramaten lurretik.

Grete: Bai, Grete ere askoz ere txukunago agertu behar da orain jendaurrean, baserri baten jabea izango baita. Eta Lydik ere lan barriak egin beharko ditu, orain

benetako zakur jagolea izango da, amaitu zaio kaka jaten ibiltzea, orain Grete eta Freddy babestu behar ditu munduaren txarrikeriatik. Bai, batek gizarte-mailan gora egiten duenean, atoa agertzen zaizkio elementu txar guztiak. Bizimodu barrian jagole indartsuak beharko ditugu.

Erna: Kaleko jendeak sekulako inbidia sentitzen du pertsona saiatu batek bere negozio propioa lortzen duenean. Eta orduan bitxi politak dauzka, eta auto distiratsu bat ere bai, eta aukera dauka Lourdesera joateko nahi duen guztietan edo Fatimara, autobus nazkagarri horietako batean sartu gabe. Baina hori gertatzen da: batek bizitza osoan egindako lanaren fruitua jasotzen duenean, jendeak gainera botatzen dizkio bere gorozki nazkagarriak.

Mariedl: *(Hankak astinduz.)* Iiiiiiii, orain neu...

Grete: Segi, segi zure fantasia zikin horiekin. Ernak eta biok gauza serioagoak daukagu pentsatzeko.

Mariedl: *(Haserre, hazka egiten du gorputz osoan.)* Jendeak alde egin du komunak atzean itxita. Ez da inor geratu, Mariedl bakarrik, edan duen perfumearen pototxua eskuan duela. Eta bere barruko usaina mundu osoko andre dotore guztiena bezain goxoa da. Kanpoan, ostera, mokordoz beteta jarraitzen du danak eta horrek tristatu egiten du apur bat. Nik arima barruan daukat edertasuna, pentsatu du, baina zoritxarrez arima hain daukat barru-barruan... Arimak betiko bizitza gordetzen du, baina gorputza da bizitza osoan erakutsi behar duguna.

Gainera, ebakia egin du okela-latagaz. Garagardoa be edan du. Eta Mariedl ondoezik sentitzen da, ezin okerrago. Egia esan, okela hungariarra eta perfume-pototxua ez dira alkarregaz bapere ondo konpontzen tripa barruan. Batek sekulako bakardadea sentitzen du komun baten beste inor ez badago eta inolako gogorik ez badu. Jaira bueltatu nahi du ikusteko jendeak zelan ospatzen duen bere zoriona. Sartu da jaian eta disfrutatzen ari da hango musika alaiagaz. Greteri begiratu dio: saltoka dabil, barre txikiak eginez, tripaundi ilehoriak gona azpian sartu gura diolako barru be atzamarra. Ernari begiratu dio: txin-txin egiten ari da Wottilagaz kafesnea eskuan hartuta. Eta jende guztia pozik dago, zorionez gainezka, komun ataskatu baten moduan.

Baina bizitzak bere legeak betetzen ditu behin eta barrero. Jai aurrean taxi bat gelditu da, eta barrutik pertsona bi urten dira, gizona bat eta emakume bat. Ez diote ordaindu taxistari eta bera arineketan joan da bien atzetik zarataka: “Non dago nire dirua?”. Baina gizona esan dio barruan atso batzuk daudela eta hareek emongo diotela dirua, eta jaiari sartu dira hirurak. Jai aurrean txakur txiki bat dago lotuta, saltxitxa-txakur eme bat, Lydi izenekoa, eta emakumeak ostikada bat jo dio.

Grete: Zer! Nork egin du hori? Urdanga zikina!

Erna interes handiarekin entzuten ari da eta keinu batez eskatzen dio Greteri isilik egoteko. Grete negar egiten du isilik.

Erna: Segi, Mariedl.

Mariedl: Grete Hannelore ikusi du urrunetik. *(Grete ozenago negar egiten du.)* Zuri-zuri gelditu da, hildako bat lez eta totelka dino: “Baina non dago, ba, Australia?”. Hannelore Grete dagoen lekura joan da zuzenean eta, hitzik esan barik, belarrondoko pare bat emon dio. Greteri haginak jausi zaizkio eta peluka okertu. Hannelorek esan dio atzean taxista gogaikarri bat duela, diru eske, eta Grete ordaindu behar diola. Hemendik aurrera Grete ordainduko ditu gastu guztiak bere erretiro-pentsioagaz. Grete negarrez dago adurra dariola.

Grete oihu egin eta Mariedlen gainera oldartu nahi du, baina Erna bizkorrago mugitu eta heldu egiten dio.

Erna: Utzi Mariedli errealitatearen berri ematen, entzun nahi dut ze zoriontsua izango naizen Wottilarekin. Grete, ikasi behar duzu egia onartzen. Egiari aurre egin behar zaio, lurra indarrez zapaldu behar da oinekin, puztu-puztu eginda badauzkazu ere. Segi, Mariedl.

Grete lur jota dago, dar-dar batean. Mariedl hizketan hasten da berriro.

Mariedl: Freddyri orain ez dio plazerrik emoten Greteri atzamarra ipurzulotik sartzeak. Harrituta, lur zikinaren gainean dauden haginei begiratu die. Eta dirua atara du poltsikotik. Taxista barrezka dago kokoloaren moduan eta zerbait esan dio Freddyri gorpuen profanazioari buruz, Grete hain deseginda ikusita. Freddyk billete bi ipini ditu mahai gainean eta esan du gogaitzen hasita dagoela atso

zahar horregaz. Orduan, Hannelorek algara egin eta beste belarrondoko pare bat emon dio Greteri, eta kolpeen eraginez peluka lurrera jauzi zaio.

Lehenago komuneko sorpresei begira egon diren guztiak orain Grete ataskatuaren inguruan batu dira. Batek dino: “Beitu, txiza egin du aldean”. Freddyk beste billete bi itxi ditu mahai gainean, eta gero altxatu, garagardoa hartu eta begira dagoen jende artean sartu da. Orduan, gizon bat agertu da eta txakur hildakoa lurrean itxita galdetu du: “Norena da hau?”.

Grete: Nire Lydi maiteaaaa! *(Gorputza uzkurdu eta konbultsioak ditu. Ukabilak estutu eta aurpegia okertzen du.)*

Erna: Bizitzak infernuko loreak landatzen ditu negarrezko ibar honetan.

Mariedl: Orain jendea urduri dago barriro be: ez dago ezer ikustekorik eta. Grete lurrean etzanda dago egunkari zaharren azpian eta ez du zirkinik egiten. Bitartean, Hannelorek zoroetxera deitu du telefonoz.

Baina jaiaren bestaldean jende asko batu da, eta Herrmann zalapartaka dabil mahai artean. Altua da eta potoloa eta itzelezko mozkorra daroa. *(Grete altxatu egin da berriz. Makillajea desitxuratu zaio. Jota dago.)*

“Laga pasatzen —esan du— nire ama ikusi behar dut, eta haren harakina, konprobatu egin behar dut larrua jo ete dion atso zikin horri”. Erna jesarrita dago, tximista batek jota lez, eta badirudi Wottilari Ama Birjina agertu zaiola barriro be. Herrmann jesarri egin da sekulako eskandalua sortuz eta deadarka dino: “Ekarri garagardo-kupel bat, azken ostiak irentsi behar ditut eta”.

Erna altxatu eta, mehatxu eginez, mugitzen hasten da. Gretek Ernari heldu eta eserarazi egiten du berriz. Ez du askatzen burua soineko aldera makurtzen duen arte.

Grete: Erna, zuk ere ikasi behar duzu egia onartzen. Bizitzak nahi duena egiten du: batzuetan sekulako pekorotz potoloa, eta beste batzuetan, mehe-mehea. Eta bizitzak halango kaka-mokordoa egiten duenean, Probidentziaren kontua da eta ez dago zereginik. Beraz, Erna, ausarta izan beharra daukazu eta itxaron amaitu arte. Segi, Mariedl.

Mariedl: Wottila da erreakzionatzen lehena eta esan dio Herrmanneri: “Zelan ausartzen zara modu horretan hitz egiten andre honeri? Bizia emon dizu eta”. Herrmannek altxatu eta, oinak Wottilaren trajeagaz garbitu ondoren, kafesnea bota dio buru soiletik behera. Wottilak, arin, praken poltsikotik atara du musuzapia eta aurpegia garbitu du isil-isilik. Gero esan dio: “Herrmann, Jaungoikoak barka dizkizula egiten dizkiozun irain guztiak. Jesukristoren zauriek isurtzen duten odol-tanta bakotxak arrastaka eroaten zaitu apurka-apurka infernura”. Erna arnasestuka dabil lepoa bihurritu dioten antzara lez. Beharbada, ezin du arnasarik hartu bero itogarria dagoelako horrenbeste jenderekin. Ernak indarrak batu eta txistua bota dio Herrmanneri aurpegira. Herrmann algaraka hasi da. “Zer, txarri batek txistua botatzea beste txarri bateri, zelan da hori?”. Eta lasai-lasai altxatu, ilea lisatu eta lepotik heldu die Ernari eta Wottilari, eta kolpeka hasi da behin eta barrero buruak odoletan ipini eta bien arimek emigratu duten arte. *(Arnasa sakon hartu eta gorputza luzatzen du.)*

Eta zertan ari da Mariedl bitartean? Han dago, edozer egiteko prest, sabelaldea distiratsu. Eta gorputz barruan duen giza gorotza urrezko hautsa bihurtu da. Jendea itzelezko jipoia emoten ari zaio Herrmanneri eta noizean behin muzturreko haundiak emoten dizkiote, polizia heldu den arte. Baina Mariedl flotatzen hasi da jendearen gainetik eta jendea isil-isilik dago: ikusten ari dira Mariedleri azala zelan askatzen zaion, urrezko hautsak presino haundia egiten duelako. Erna eta Wottila alkarregaz lurperatzekotan dira. Mariedl ederrak urrezko hauts apur bat botako du haren buru txikituen gainean. Eta gero flotatzen jarraituko du eta Herrmann gixajoarengana joango da, kartzela barruan dago, eta urrezko hauts apur bat oparituko dio. Eta Gretegaz be gogoratuko da: Grete zoroetxera joango da laster, Hannelorek dana konpondu du. Eta Hanneloreri ere botako dio urrezko hauts apur bat Australiara bueltatu baino lehen.

Bien bitartean, Erna eta Grete zutitu dira eta arasatik labana bat hartu eta aztertzen ari dira. Erna irten egiten da une batez, eta eskuetan ontzi bat eta trapu bat dituela itzultzen da.

Mariedl: Mariedlek ez dauka minik oinetan, on egiten dio flotatzeak. Oinak gero eta txikiagoak ditu eta bizitza, ostera, gero eta haundiagoa. Eta abade jaunak euli urdin bat emoten du, hain dago urrun. Mariedl gero eta altuago doa flotatzen. Behean, Lourdes ikusten da, pospolo-kaja baten antzera. Eta han dabil Ama

Birjina ere, hegaz, inoren aurrean agertu baino lehen. Ama Birjina gaixoa behera begira dago, bihotza samurtuta.

Kontu handiz eta batere emoziorik erakutsi gabe, Erna eta Grete Mariedlengana hurbiltzen dira. Lepoa ebakitzen diote alderik alde. Ernak ontzia eta trapua ekartzen diru berehala, txerrikeria saihestu nahian.

Erna: Pertsonak oso usain arraroa daukate barrualdean. Nola liteke hainbeste odol edukitzea. Eta honek seguru gorozki handi bat duela buruan ere. Gustura jakingo nuke.

Grete: Mihinak ez dauka batere itxura txarrik. Hartu egingo dut, Lydirentzat.

Erna: Ze bare dagoen odol gorri-gorria. Nik beti pentsatu dut pertsona bat hiltzen denean, dena aldatzen dela hildakoaren barruan.

Grete: Eta zer egin behar dugu gorpuarekin?

Erna: Sotoan lurperatuko dugu. Jende dotoreak dioenez, herri honetan mundu guztiak dauka hildako bat sotoan lurperatuta.